



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2019.05.21EAN EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
OÑATI

ETORRI GABEAK

MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
JUAN BENGOA PAGALDAY
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2019ko maiatzaren 21ean, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez onartu du 2019ko apirilaren 2an egindako bilkura bereziko aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorraren eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzahitzarmenari atxikitzea

Mankomunitate honek jakin du administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean lankidetzahitzarmen bat sinatu zuela. Eta Mankomunitate honi ere bertan jasotakoa interesatzen zaionez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Sinatutako lankidetzahitzarmen hauekiko atxikimendua eskatzea. Hain zuzen ere:
 - Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzahitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakidunean, argitaratuta dago.
 - Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzahitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakidunean, argitaratuta dago.
2. Mankomunitate honek hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, harekiko atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoen oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatutakoak) edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenean Gipuzkoako Foru Administrazioarako ezarritako betebeharrak.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3. Hauek dira aipatu administrazio elektronikoaren zerbitzuen katalogoan jasotzen diren irtenbide teknologikoak:
- Euskal administrazio publikoen komunikazio-sarea.
 - Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko baliabideak kudeatzeko zerbitzuak.
 - Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Ekarreragingarritasunerako Nodoa (NISAE).
 - Ordainketa-pasabidea.

3.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

3.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa

- J.F.A.; luzapen bat

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2020ko maiatzaren 6ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 5-IM industri modulua erabiltzeko baimena, J.F.A. jaunari emana, Gobernu Juntaren 2018ko martxoaren 20ko erabaki bitartez eta 2018ko azaroaren 20ko erabaki bitartez lokala aldatuz.

- Fidantza bat bueltatzea; S.I.G.

Enpresa Ekintzetarako Zentroaren modulu bat erabiltzeko emandako baimena dela eta aurkezturiko fidantza bueltatzeko espedientea ikusita.

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudiak 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak aho batez ondorengo ERABAKI DU:

- S.I.G. ekintzaileari bere egunean jarritako 59,40 €-ko fidantza bueltatzea.

3.2.- Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratazio espedientea

Mankomunitatearen Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espeditentea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.
5. Kontuan izanda orain Gobernu Junta berria eratu arte arazoak egon daitezkeela Gobernu Juntaren bilkurak egiteko quoruma lortzeko, eta eskumen hau ez dagoenez eskuordetzan eman ezin diren eskumenen artean, Mankomunitateko lehendakariaren esku uztea kontratazio espeditente honetan aurkeztutako proposamenen sailkapena onartzeko erabakia.

3.3.- HAZILAN proiektuaren “Aktibatu” fasean formazioa emateko kontratazio espeditentea; proposamenen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2019ko otsailaren 19an egindako bilkuran, HAZILAN POPV FSE 2014-2020 proiektuaren “Aktibatu” fasean enplegua bilatzeko kompetentzia pertsonalak eta sozio-laboralak lantzeko formazio ekintzak garatu eta emateko kontratazio espeditentea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen, esleitze prozedura irekitzea erabakiz.

Horretarako emandako epean bi proposamen aurkeztu ziren, biak onartuz:

1. INNOBIDE, S.L.
2. NORGARA DESARROLLO, S.L.

“B” gutun-azalean jasotako dokumentazioa balioetsi ondoren, balorazio automatikoko irizpideei dagokien “C” gutun-azalak ireki ditu Kontratazio Mahaiak eta eskaintzak segida beherakorrean sailkatu ditu, Administrazio-Klausula Berezien Agirian jasotako irizpideen arabera.

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Eskaintzen ondorengo sailkapena onartzea:



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

	<u>Empresas licitadoras</u>	<u>Criterios de valoración que dependen de un juicio de valor</u> 50 puntos	<u>Criterios automáticos</u> 50 puntos	<u>TOTAL</u> 100 puntos
1	INNOBIDE, S.L.	40	45	85 puntos
2	NORGARA DESARROLLO, S.L.	44,5	29,95	74,45 puntos

2. Saikapen honen arabera, INNOBIDE, S.L. enpresak aurkeztutako proposamena denez eskaintzarik onena, aipatu enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, Administrazio Klausula Berezien Pleguaren 17. klausulak, 5. atalean, jasotako dokumentazioa aurkezteko.
3. Kontratu honen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.4.- Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak. 2019ko deialdia

Gobernu Junta honek, Garapen Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, 2017ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileei hasierako onespena eman zien.

Oinarri hauek jendaurrean jarri eta inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezenez, behin betiko onartuta gelditu ziren, martxoaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Mankomunitateko lehendakariak, 2019ko martxoaren 22ko ebazpen bitartez, 2019ko diru-laguntza deialdia onartu zuen, 19.000 €-ko gastua baimenduz, deialdi honi aurre egiteko. Deialdi hau 2019ko apirilaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskaerak aurkezteko epean, eskaera bakarra aurkeztu da, ARIZMENDI KOOP. ELKARTEA-rena.

Deialdiaren 7. oinarria betez, Garapen Agentziako arduradunak, aipatu Elkarteak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, bere balorazio txostena egin du,



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

aurkeztutako eskaerak onuradun izateko ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela baieztatuz.

Arduradunaren txostena ikusirik, Garapen Agentzia Batzordeak ARIZMENDI KOOP. ELKARTEA-ri 19.000 €-ko diru-laguntza ematea proposatzen du.

Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak emateko 2019ko deialdiaren barruan, ARIZMENDI KOOP. ELKARTEA-ri 19.000 €-ko diru-laguntza ematea.

4.- LEHENDAKARITZA

4.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

19/30.- 1.- Debagoieneko Mankomunitateko funtzionarioen Plantilako bi informatzaile-teknikari plaza, lehiaketa-oposizio irekiz, eta pertsonal laboralaren txofer-langileburu plaza bat, barne promozioz, betetzeko hautapen prozesuen deialdiak egitea.

2.- Deialdi hauek arautuko dituzten oinarriak onartzea.

3.- Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta haren laburpen bat Estatuko Aldizkari Ofizialean, argitara dadila agintzea.

19/31.- Zehapen espedientea hastea Aretxabaletako Iturrizar plazako 5-3-B etxebizitzan bizi den I.G.H. andrearen aurka, 2019ko urtarrilaren 17an ustez egindako falta arin bategatik, Udaltzaingoaren txostenean jasotako gertaera hauetan oinarrituta:

“Arratsaldeko txandan lanean ari ginen bitartean Lausita 2ko kontenedore kanpoaldean kartoizko laranja kaxa bat ikusi dugu eta kaxan idatzita zegoen nor izan zitekeen kaxa kanpoan utzi duen pertsona. Itziar Gortazar Huete anderea, Iturrizar plazako 5-3-B etxebizitzan bizi dena.”

19/32.- 19/05 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira MILA EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO ETA HAMABOST ZENTIMO (1.168,15 €).

19/33.- 19/06 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUREHUN ETA BERROGEITA ZORTZI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (448.387,77 €).

19/34.- Lehenengoa. Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2019-KALD-000003-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	132.103,94
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	329.246,69
6	INBERTSIO ERREALAK	205.125,78
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		666.476,41

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	666.476,41
FINANTZAKETA GUZTIRA		666.476,41

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

19/35.- 19/06 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HOGEITA BI MILA ETA HIRUROGEITA HEMERETZI EURO ETA ZORTZI ZENTIMO (122.079,08 €).

19/36.- 1.- Mankomunitate honetako hainbat udalerrietako argiteria publikoan energia aurrezteko LED teknologiako argiak eta ekipamenduak hornitzeko eta instalatzeko kontratuaren 1, 2 eta 3 loteak TECUNI, S.A. enpresari esleitzea ondorengo prezioan:

- 1 lotea, Aretxabaletako udalerrian argiteria publikoa berritzea: 177.808,98 gehi 37.339,89 €, BEZaren %21ari dagokiona.
- 2 lotea, Arrasateko udalerrian argiteria publikoa berritzea: 345.353,46 gehi 72.524,23 €, BEZaren %21ari dagokiona.
- 3 lotea, Bergarako udalerrian argiteria publikoa berritzea: 54.024,98 gehi 11.345,25 €, BEZaren %21ari dagokiona.

2.- Kontratu honen aurka kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jar daitekeenez, formalizazioa ezingo da burutu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerei bidali eta hamabost egun baliodun igaro aurretik.

3.- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. Artikulua betez, Koldo Azkoitia Zubizarreta, Agentzia Zerbitzuko arduradun teknikoa, izendatzea kontratu honen arduradun.

19/37.- - Imponer al B.I. de Bergara una **multa de 60 €**, cuantía mínima recogida en la Ordenanza Reguladora de la Recogida de Residuos Domésticos en Debagoiena para



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

las faltas leves, por una infracción recogida en los apartados a) y c) del artículo 82.3 de la citada Ordenanza, calificadas como leves, teniendo en cuenta el carácter disuasorio de estos expedientes sancionadores.

Ahora bien advertir al interesado que en el caso de reincidir la cuantía de la multa se verá incrementada ostensiblemente.

5.- GALDE-ERREGUAK

- Kontu-hartzaileak jakinarazi du gaur bertan jaso dela gaur egun Mankomunitateak hondakin bilketa zerbitzuko ibilgailuak gordetzeko darabiltzan Meatzerrekako instalazioen balorazio txostena.

Bilera honetako akta onartzea

Azkenik, bilera honetako akta irakurri eta aho batez onartu da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:00etan, bukatutzat eman da bilkura.